


berria

Inprimatzeko bertsioa

Inprimatu 

Estereotipoak auzitan

Bigarren eskuko arroparekin eginiko diseinuak erakutsiko ditu Modorrrak Bilbon etzitik aurrera

IRUNE BERRO - BILBO

Ez da Gaudi, ezta Cibeles ere. Suelen.org kultur elkarteak Bilboko Erriberako azoka aukeratu du moda desfilea egiteko, Modorra ibiltokia antolatzeko. Estereotipo komertzialak kolokan jarri, eta Bilboko eraikin mitikoa moda alternatiboaren topagune bihurtuko du hilaren 24tik 26ra bitarte. Orotara, hemengo eta kanpoko 60 diseinatzailek erakutsiko dituzte beren azken lanak, jantzi, soineko, praka, kapelu eta zapatak.

Aurrena, baina, Maroussia Rebecqek gidatzen duen Andrea Crews frantziar kolektiboak Bigarren eskuko, Bilbon baino ez proiektua ekarri du Bilbora, Consonni arte ekoiztetxearen eskutik. Erriberako azoka moda taller inprobisatu bilakatu du. Berohi elkartearen laguntzarekin, bigarren eskuko bost tona arropa jaso du, eta bertara batzen den jendearen esku utzi du, irudimena askatu eta nork bere diseinuak egin ditzan. Artaziak eta josteko haria azokan bertan topatuko dituzte diseinatzaile aritu nahi dutenek. Bai eta jostun eta diseinatzaile profesionalak ere, inork beren aholkuak jarraitu nahiko balitu. Bertan egindako jantziak Modorra ibiltokian aurkeztu dituzte hilaren 25ean, eta horren ondoren, enkantean jarriko dituzte, Miriam Okariz, Ion Fiz, Alicia Rueda, Angel Vilda, Elisa Aman, Marta Teheran, Yolotaola eta Pilar de Miotaren diseinuekin batera. Moda desmitifikatu gura du Modorrrak. Estereotipoak irauli. Eta, era berean, artista berrien lanak sustatu. Hori horrela, egitarau handinahia prestatu du Suelen.org elkarte antolatzaileak. Askotariko diziplinak tartekatuko ditu desfile, hitzaldi, eztabaida eta zuzeneko musika saioen bidez. Estetika soziala, joera berriak, marken monopolioa, produkzio sistema komertzialak... Hainbat gai jarriko dituzte mahai gainean, solaserako eta eztabaidarako. Ez da Modorra antolatzen duten lehen aldia; ia egin zuten estreinako aldiz, 500 lagun bildu zituzten, eta aurten zenbakiak ere hankaz gora jartzeko gogoz itzuli dira: 2.000 lagun espero dituzte antolatzaileek.

Musika saioak eta hitzaldiak

Pilar de Miotaren, Azeguiñe eta Tytti Thusberg disenatzaileen desfileek emango diote hasiera Modorrrari. Haien azken kreazioen ondotik ikusi ahalko dira ondorengo diseinatzaile hauen lanak: Ambrosia Pitiguil, Igor Alustiza, Alta Postura, Kabuki, Cecilia Nam, Angel Vilda, Ana Lianas, Tamara y Lorena, Menchumenchu, Lolitas, Fulanita y Menganita eta Maria de la O.

Musikak ere tarte zabala izango du Modorrran; Madel, Felix Daniel eta Unai & Begoña igaroko dira Erriberako azokatik. Egitarauaren osagarri, zenbait hitzaldi eta solasaldi ere egingo dituzte; Andrea Crews kolektiboko ordezkari Maroussia Rebecq eta Ion Fiz eta Gorka Mendieta diseinatzaileak irudi sozialaren ikuspegi berriei buruz mintzatuko dira. Horretaz gainera, Yomango.net etxeak, Actionfutur eta Metabolikbiohacklab kolektiboek bere azken proposamenak. Zein baino zein ausartago eta bereziagoa.

© Berria.info